TOLOSAKO UDALA

2026EIZE0001– 2026IPLE0009

MARIA CARMEN CONTRERAS GOIKOETXEA, Tolosako udal idazkari akzidentala.

NEUK ZIURTATUA:

Tolosako Udalbatzak, bi mila eta hogeita seiko urriaren hogeita bederatzian, egindako Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

10.PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, KALE IZENDEGIA BERRIKUSTEA

PUNTO 10. APROBACIÓN INICIAL, EN SU CASO, DE LA REVISIÓN DEL CALLEJERO.

Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2026ko urriaren 21eko irizpena

I K U S I R I K

BAKARRA.- Tolosako Udalean euskara-arloaren eskumena duen zinegotzi delegatuak, Miren Garbiñe Marzol Ormazabalek, 2026ko uztailaren 7an egindako probidentzia baten bidez, ebatzi zuela espedientea hastea Tolosako kale-izendegi ofiziala aldatzeko.

K O N T U A N H A R T U R I K

LEHENA.- Tolosako Udalari dagokiola bere lurralde- eta eskumen-eremuko izen ofizialak finkatzea eta, oro har, toponimoak eta leku geografikoen izenak onartzea. Hala xedatzen du 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 7.3. artikuluan.

BIGARRENA.- Toponimoak egoki erabiltzea zaindu behar duela Udalak, bat etorrita 179/2019 Dekretuarekin, azaroaren 19koarekin, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoarekin: «*Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuko toki-entitateek eta tokiko sektore publikoa osatzen duten entitateek, bai eta dekretu honen aplikazio eremu subjektiboko pertsona fisiko eta juridikoek ere, toponimo ofizialak behar bezala erabiltzen direla zainduko dute*» (42.3. art.).

HIRUGARRENA.- Tolosako Udalbatzak 2006ko uztailaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran onartu zuela Tolosako kale-izendegia hasierako izaeraz. Alegazio bat izan zen, eta Udalbatzak 2006ko abenduaren 27an onartu zuen izendegia behin betiko izaeraz. Geroztik beste izen batzuk ezartzea ere onartu du Udalbatzak: *Euskal Pizkundea plaza*, *Emakumeen plaza*, *Apatta kalea*,

ESKUf358de7b-8ebc-4061-aac8-94e0c35fb73e

Euskaldun berria zubia… Onespen horietako batzuk mozio bidez egin dira, eta ez da izan indarrean dagoen kale-izendegiaren testu bateginik.

LAUGARRENA.- Egoera hori arazotsua dela izendegia egoki erabiltzeari dagokionez, eta ez datorrela bat unibokotasun-, argitasun- eta zehaztasun-printzipioekin (179/2019 Dekretua, 43. artikulua). Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak txosten bat egin zuen arazo horretaz ohartarazteko, honako lau iturri hauetako kale-izendegiak alderatuta:

- Udalak onartutako kale-izendegia.
- Hirigintza Sailak darabilen izendegia.
- Udate harrera-zerbitzuak darabilen izendegia.
- GeoEuskadiko izenak, Eustat eta Izendegi Geografiko Ofiziala iturri dituztenak.

Azterketa horretan sumatu zen lau iturrien artean hainbat kontraesan daudela: zerrenda batzuetan soilik dauden izenak, modu diferenteetan ageri direnak, jada ez dauden lekuei erreferentzia egiten dieten izenak… Proposatu zuen forma bakarra ematea izendegian.

Era berean, kontuan hartuta zubiak ere ohiko erabilerako espazioak direla, proposatu zuen kale-izendegian txertatzea herriguneko zubien izenak ere, erabilera argitze aldera.

BOSGARRENA.- Aipatutako txostenean, zerbitzuburuak ohartarazi zuela izendegia ez datorrela bat gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzearekin. Pertsona-izenak dituzten kaleetan, agerikoa da desoreka: hamabost gizon eta emakume bat. Santuen izenak dauzkaten lekuetan, sei gizon eta bi emakume. Helburu hau finkatzen du Tolosako Udalaren Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Ordenantzak, 10. artikuluan: «*Emakumeek historian eta udalerriaren garapenean egin duten lana ikustea eta aintzat hartzea ziurtatuko duten neurriak eta estrategiak diseinatzea eta abian jartzea, eta bereziki, emakumeek tokiko memoria gordetzera eta hedatzera bideraturiko elementuetan presentzia dutela sustatzea (kale-izendegia, monumentuak eta abar)*». Ikusita udalerrian badirela izenik ez duten eremu batzuk (zubiak eta pasabide batzuk), proposatu zuen horiek baliatzea kale-izendegian dagoen genero-desoreka bideratzeko.

Abiapuntu horrekin, Berdintasuna Sailak partaidetza-prozesu bat egin zuen izendegian emakumeak ikusarazteko helburuz. Lehenik, izendegirako proposamenak jaso ziren, eta, gero, Berdintasun Kontseiluak aztertu zituen. Zortzi hauek izan zuten boto gehien:

- Cecilia G. de Gilarte
- Izaskun Etxetxipia
- Dina Bilbao
- Martxoak 8
- Doña Manuela bertsolaria
- Bienvenida Agirrezabala
- Emakume baserritarrak

ESKUf358de7b-8ebc-4061-aac8-94e0c35fb73e

- Pilar Sansinenea

Izen horiek izendegian txertatzeko, aztertu da zer leku dauden izen ofizialik gabe, eta zein izan daitekeen egokiena eremu bakoitzerako, betiere kontuan hartuta leku horretan ez egotea izena zehazteko erabil daitekeen izen historikorik, kasu horretan horrek bailuke lehentasuna, bat etorrita 179/2019 Dekretuaren 44.4. artikuluan xedatutakoarekin.

SEIGARRENA.- Izendegia aldatzeko prozedurari dagokionez, irizpena eskatu behar zaiola Euskaltzaindiari, 179/2019 Dekretuaren 44.4. artikuluari jarraikiz. Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2026ko uztailaren 14an egindako ofizio baten bidez, irizpena egiteko eskatu zion akademiari. 2026ko irailaren 30ean jaso zen txostena. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da Euskaltzaindiarena irizpena dela, eta ez agindu bat. Hala, Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2026ko urriaren 1ean egindako txostenean, azterketa bat egin zuen, Sailaren proposamenak eta Euskaltzaindiak horiei buruz egindako oharrak oinarritzat hartuta, eta izendegirako azken proposamenak egin.

ZAZPIGARRENA.- Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioari dagokionez, zeina egitea xedatzen baitu 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, kasu honetan ez dela egin azterketa hori; izan ere, izendegia egokitzearen helburuetako bat izan da emakumeei ikusgarritasuna ematea, eta, hortaz, hasieratik hartu da aintzat genero-eragina, eta, hain zuzen, eragin positiboa edukitzea da helburua. Hala jasotzen da Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak eta berdintasun-teknikariak 2026ko uztailaren 21ean eginiko txostenean.

ZORTZIGARRENA.- Idazkaritza Saileko teknikari juridikoak, 2026ko urriaren 2an, aldeko txosten juridikoa egin duela.

BEDERATZIGARRENA.- Euskararen Aholku Kontseiluaren batzorde iraunkorrak 2026ko urriaren 15ean egindako bileran aztertu zuela kale-izendegia berrikusteko proposamena.

HAMARGARRENA.- Legeriak ez duela zehazki xedatzen zein organok duen kale-izendegia aldatzeko eskumena. Nolanahi ere, kontuan hartuta gaiak nolako inpaktua eta garrantzia duen, eta udal-ordenantzak eta horrelako arauak egiteko eskumena harena denez gero, egokiena litzateke Osoko Bilkuran aztertzea eta ebazpena ematea, bat etorrita 7/1985 Legearen 22. artikuluak Osoko Bilkurari ematen dizkion eskumenekin.

ESKUf358de7b-8ebc-4061-aac8-94e0c35fb73e

179/2019 Dekretuak 45. artikuluan xedatutako prozedurari jarraituz, Osoko Bilkurak hasierako onespena eman ondoren, espedientea jendaurrean jarri behar da 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta. Alegazioak egiteko epe hori igaro ondoren hartu beharko du behin betiko erabakia Osoko Bilkurak, aurkeztutako alegazioak ebatzita, hala badagokio. Prozedura bukatzeko, espediente osoaren kopia autentifikatua bidali behar zaio Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari.

Tolosako Udaleko Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2026ko urriaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

- **Aldeko botoak:** Aitor Aguirresarobe Murgui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia eta Aitzol Luis Garcia Azurmendi.
- **Kontrako botoak:** Jose Maria Villanueva Telleria.
- **Abstentzioak:** Maria Leire Zubeldia Rezola eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, gehiengoz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Tolosako kale-izendegian honako izen hauek kentzea:

- Eduardo Mokoroa lorategia.
- Frantzisko Tolosa kalea.
- Hernialdeko bidea.
- Ibar Kondearen pasealekua.
- Sortzez Garbia plaza.

BIGARRENA.- Tolosako kale-izendegian honako izen hauek aldatzea:

Izen ofiziala	Proposamena
Batxiler Zaldibia kalea	Zaldibia Batxilerraren kalea
Iruña etorbidea	Iruñea etorbidea
Kale Barrena	Kalebarrena
Mª Luisa Agirre Doktorearen plaza	Maria Luisa Agirre Doktorearen plaza
Tolosa C.F.ren plaza	Tolosa CF plaza

HIRUGARRENA.- Tolosako kale-izendegian honako izen hauek txertatzea:

ESKUf358de7b-8ebc-4061-aac8-94e0c35fb73e

- Amarozko zubia.
- Arrameleko zubia.
- Berazubiko zubia.
- Bienvenida Agirrezabala zubia.
- Cecilia G. Gilarte pasealekua.
- Dina Bilbao zubia.
- Doña Manuela Bertsolariaren pasabidea.
- Emakume Baserritarren zubia.
- Euskaldun Berrien zubia.
- Guadalupe zubia.
- Igerondoko zubia.
- Irunzubi.
- Izaskun Etxetxipia zubia.
- Martxoaren 8a plaza.
- Naparzubia.
- Norvegiarren lorategia.
- Olarraingo zubia.
- Pilar Santsinenea zubia.
- Sokorrope pasabidea.
- Usabalgo zubia.
- Zubiberria.

LAUGARRENA.- Aldaketa guztiak eginda, Tolosako kale-izendegi bategina onartzea:

TOLOSAKO KALE-IZENDEGIA
Agaramundu plaza
Alberto Perez Rexil kalea
Aldaba auzoa
Aldabatxiki auzoa
Alde Zaharra
Alliri pasealekua
Alondegi plaza
Amarotz auzoa
Amarozko zubia

ESKUf358de7b-8ebc-4061-aac8-94e0c35fb73e

Andia kalea
Andre Maria kalea
Andre Maria plaza
Antonio Lekuona kalea
Antonio Maria Labaien plaza
Apatta kalea
Araba etorbidea
Armeria plaza
Aroztegieta kalea
Arramele auzoa
Arramele kalea
Arrameleko zubia
Arrillaga plaza
Artxipiaga plaza
Atari kalea
Auzotxikia
Bedaio auzoa
Belate pasealekua
Beotibar kalea
Berazubi auzoa
Berazubi kalea
Berazubiko zubia
Berdura plaza
Bidebieta auzoa
Bienvenida Agirrezabala zubia
Bizkaia kalea
Cecilia G. Gilarte pasealekua
Dina Bilbao zubia
Donostia etorbidea
Doña Manuela Bertsolariaren pasabidea
Elkano kalea
Emakume Baserritarren zubia

ESKUf358de7b-8ebc-4061-aac8-94e0c35fb73e

Emakumeen plaza
Emeterio Arrese kalea
Enperadore kalea
Errementari kalea
Eskolapioetako lorategiak
Euskal Herria plaza
Euskaldun Berrien zubia
Felipe Gorriti plaza
Fleming pasealekua
Foru etorbidea
Garmendiola aldapa
Geltoki kalea
Gernikako Arbola lorategiak
Gipuzkoa plaza
Guadalupe zubia
Gudari kalea
Ibaiondo kalea
Ibarralde kalea
Igeralde kalea
Igerondo kalea
Igerondoko zubia
Inpernu kalea
Iparragirre auzoa
Irunzubi
Iruñea etorbidea
Iurramendi pasealekua
Iurre auzoa
Izaskun auzoa
Izaskun Etxetxipia zubia
Izaskungo aldapa
Izaskungo Andre Maria plaza
Jesusen Zerbitzarien kalea

ESKUf358de7b-8ebc-4061-aac8-94e0c35fb73e

Jon Andoni Irazusta pasealekua
Kalebarrena
Kale Nagusia
Kondeaneko aldapa
Korreo kalea
Lapurdi plaza
Larramendi kalea
Laskoain kalea
Leitza kalea
Letxuga kalea
Lizardi plaza
Lopez-Mendizabal pasealekua
Madalen kalea
Maria Luisa Agirre Doktorearen plaza
Martin Jose Iraola kalea
Martxoaren 8a plaza
Monteskue auzoa
Montetxe kalea
Nafarroa etorbidea
Naparzubia
Norvegiarren lorategia
Olarrain auzoa
Olarraingo zubia
Oria kalea
Paper kalea
Paulo Rekondo kalea
Pedro Tolosa pasealekua
Pilar Santsinenea zubia
Plaza Berria
Plaza Zaharra
Rekalde Almirantearen kalea
Rondilla kalea

ESKUf358de7b-8ebc-4061-aac8-94e0c35fb73e

Sakramentu pasealekua
Samaniego kalea
San Blas auzoa
San Esteban auzoa
San Frantzisko pasealekua
San Inazio kalea
San Joan kalea
San Joan plaza
Santa Klara kalea
Santa Lutzia auzoa
Sokorrope pasabidea
Soldadu kalea
Tolosa CF plaza
Trianguloa plaza
Trinkete plaza
Urkizu auzoa
Usabal auzoa
Usabalgo zubia
Uzturre kalea
Zabalarreta parkea
Zaldibia Batxilerraren kalea
Zerkausia kalea
Zuberoa auzoa
Zubiberria
Zuloaga auzoa
Zumalakarregi pasealekua

BOSGARRENA.- Espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek aztertu ahal izan dezaten, eta, egoki irizten badiote, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten.

SEIGARRENA.- Erabaki hauek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako udaletxeko iragarki-taulan eta Tolosako Udalaren webgunean.

ESKUf358de7b-8ebc-4061-aac8-94e0c35fb73e

Alkatea Osoko Bilkuratik irten da, abstenitzeko arrazoia dagoelako, eta beraz, Ander Figuerido Alkate-ordeak bere gain hartu ditu bere eginkizunak.

Bozkatu egin da eta hau izan da emaitza:

Aldeko botoak: Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte

kontrakoak: Xarles Iturbe Pasaban, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Maria Leire Zubeldia Rezola, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Berdinketa egon denez, berriro errepikatu da bozketa eta hau izan da emaitza:

Aldeko botoak: Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte

kontrakoak: Xarles Iturbe Pasaban, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Maria Leire Zubeldia Rezola, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Ander Figueridok bere kalitateko botoa erabiliz aldeko botoa eman du.

Udalbatzak, gehiengoz, kale izendegia berrikustea erabaki du.

Hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Antolakuntza Lan Esparruko zinegotzi delegatuaren onespenarekin, Tolosan, sinadura agertzen den datan.

O.e.
ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARI AKZIDENTALA
MARIA CARMEN CONTRERAS GOIKOETXEA

EKS | CSV: ESKUf358de7b-8ebc-4061-aac8-94e0c35fb73e

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2026IPLE0009-10 KALE IZENDEGIA/10 KALE IZENDEGIA ()

Digitalki sinatua:

Karmele Contreras Goikoetxea
Idazkari akzidentala
Data: 2026/11/03 09:49:53

SARA BERASATEGUI FUERTES titularraren ordez jarduten (2026/2197 dekretu bidez ebatzita)

Digitalki sinatua:

Cristina Peláez Errazquin
Zinegotzi delegatua
Data: 2026/11/03 10:59:07